

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Ekonomi jardueren gaineko zergaren kontribuzio zerrenda. 2019ko urtea. (Espedientea: 2019/1/S065)**

Arabako Foru Aldundiak 2019 urteko Laudioko ekonomi jardueren gaineko zergaren zerrenda, onartu du.

Alkate-udalburuak, 2019ko uztailaren 1 eguneko 1621 zenbakia duen ebazpenaz, zerrenda hori jendaurrean erakutsi onartu du, ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan egunetan zehar, honako leku hauetan:

- Arabako Foru Aldundian: estatuko eta probintziako kuotak.
- Laudioko Udaletxean: udalerriko kuotak.

Interesa dutenek aipatu den tributazioko espediente hori aztertu ahal izango dute herriko etxeko -udaletxeko- Ogasun eta Ondare Arloko bulegoan (Herriko Plaza - bigarren solairuan) 9:00/14:00 orduetara barruan. Formula ditzakete, baita ere, euren eskubideekiko egoki eta komenigarri irizitako azalpen eskaerak, alegazioak edo/eta erreklamazioak.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakustek esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko udal ordenantza fiskal orokorreko 2.1. atalean xedatutakoaren arabera.

Aipatu den alkate-udalburuko ebazpenaren aurka kontribuzioa ordaindu beharra dutenek berraztertze errekurtsioa jarri dezakete, hilabete bateko (1) epearen barruan, iragarki honen jendaurreko erakusketa aldia amaitu ondorengo biharamunetik zenbatzen hasita.

Azalpen eskaerak, alegazioak, erreklamazioak eta berriro aztertze errekurtsioak alkate-udalburuari zuzendu behar zaizkio, lehenago aipatu den epearen barruan.

Borondatez ordaintzeko epea, bi hilabetekoa izango da, 2019ko urriaren 17 egunetik 2019ko abenduaren 17 egunera arte, biak barne hartuta.

Helbideratuta dauden erreziboak 2019ko azaroaren 17 egunean kobratuko dira.

Zergaren ordainketa euren banku edo aurrezki kutxan helbideratu barik duten herritarrentzako kobrantza eta dirubilketa Kutxabank eta Laboral Kutxako bulegoen bitartez egingo da, Kutxa horiek herritarren arretarako zabalik dauden ordutegian zehar, kobrantzaz arduratuko den kutxak etxera bidalitako ordaindu beharreko erreziboa aurkeztuta. Erreziborik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, erreziboaren ale bikoiztua eskatu herriko etxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), Herriko Plaza - behea ezkerrean.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren erreziboak automatikoki eta berez behartze-bidezko derrigorreko kobrantza prozeduran sartuko dira eta ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu beharko zaizkio legetan erabakitako gainkarguak, berandutza-korrituak eta, hala badagokio, sor litezkeen berandutza eta behartze-bideagatiko kostuak.

Laudio, 2019ko uztailaren 1a

*Alkate-udalburua*

**ANDER ANIBARRO MAESTRE**